Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2256

EBAZPENA, 2009ko apirilaren 8koa, Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordearena, 2009ko ekitaldiari doakionez, «Innotek Programa» delakoaren barruan teknologia eta berrikuntza garazteko proiektuak buru daitezen, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren laguntzak ematera bideratutako baliabideak gehitu direla argitara emateko dena.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2008ko azaroaren 27ko Aginduaren bitartez, teknologia eta berrikuntza garatzeko proiektuak bultzatzeko «Innotek Programa» arautzen da.

Agindu horretako 13. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriaz, Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordeak 2009ko otsailaren 4an Ebazpena eman zuen (2009ko otsailaren 20ko EHAA), zeinaren helburua hauxe baita: 2009ko ekitaldiari dagokionez, «Innotek Programa» delakoaren barruan teknologia eta berrikuntza garatzeko proiektuak buru daitezen, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren laguntzak ematea.

Kontuan hartuta Innotek Programaren barruan aurkeztu diren laguntza-eskabideak eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak aurrekontuetan erabilgarri dituen baliabideak, bidezkoa da, 2009 ekitaldirako, programa horretan ezarritako funtsak gehitzeari.

Horregatik, deialdia egin zuen ebazpenaren 1. artikuluan ezarritako ahalmenaz baliatuta eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen urriaren 11ko 284/2005 Dekretuan xedatutakoaren arabera, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– 2009ko otsailaren 4ko Innotek Programaren barruan teknologia eta berrikuntza garatzeko proiektuak egin daitezen (otsailaren 20ko EHAA), 2009ko deialdirako aurreikusitako diru-bideak 24.300.000,00 eurora arte gehitzea, 2009ko ekitaldirako, betiere aurrekontu-baliabideen arabera.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

2256

RESOLUCIÓN de 8 de abril de 2009, del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial, por la que se hace público el aumento de los recursos destinados para la concesión de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo para la realización de proyectos de desarrollo tecnológico e innovación en el marco del «Programa Innotek», para el ejercicio 2009.

La Orden de 27 de noviembre de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, regula el «Programa Innotek» de apoyo a la realización de proyectos de desarrollo tecnológico e innovación.

De conformidad a lo establecido en el artículo 13 de la citada Orden, el Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial dictó resolución con fecha 4 de febrero de 2009, publicándose la convocatoria en el BOPV de 20 de febrero de 2009, para el ejercicio 2009, de concesión de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo a la realización de proyectos de desarrollo tecnológico e innovación en el marco del «Programa Innotek».

Teniendo en cuenta la cuantía de las ayudas solicitadas, dentro del Programa Innotek, y en función de las disponibilidades presupuestarias del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, procede realizar un incremento de los fondos destinados a las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2009.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 1 de la resolución de convocatoria, en relación con lo dispuesto en el Decreto 284/2005, de 11 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo

RESUELVO:

Primero.– Incrementar hasta un total de 24.300.000,00 euros, los recursos económicos previstos para la convocatoria de 2009 de apoyo a la realización de proyectos de desarrollo tecnológico e innovación, en el marco de Programa Innotek, de fecha 4 de febrero de 2009, publicada en el BOPV de 20 de febrero, para el ejercicio 2009, en función de las disponibilidades presupuestarias.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 8a.

Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordea,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.

Segundo.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de abril de 2009.

El Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.